

Gasteizko Erizaintzako Unibertsitate Eskola

Erizaintzako Gradua



Osakidetza



EHU



OSASUN SALA
DEPARTAMENTO DE SALUD



Eskola datuetan	3. or
Azpiegiturak	4. or
Mugikortasun programak	5. or
Unibertsitateko praktikak	6. or
Eleaniztasuna	6. or
Gaitasunak	7. or
Ikasketa plana	8. or
Graduaren ondoren...	10. or

Gasteizko Erizaintzako Unibertsitate Eskola goi-mailako hezkuntzako eskola publikoa da, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiaren mendekoa, eta, ondorio akademikoetarako, Euskal Herriko Unibertsitateari (EHU) atxikita dago.

Erizaintza, zure etorkizuna

Zentroaren misioa da erizaintzako profesionalak trebatzea, prestakuntza zientifiko eta humanoarekin, gai izan daitezen artatzen dituzten pertsonen osasun-premiei egokitutako arreta sanitario tekniko eta profesionala emateko. Horretarako, zentroko irakaskuntzaren oinarria da unean uneko ezagutza zientifikoaren garapena, eta etengabe betetzen dira aplikatzekoak diren lege- eta deontologia-arauetan ezartzen diren kalitate- eta segurtasun-mailak.



+50

urte irakasten

84

plaza ikasturte
bakoitzeko

27

pertsonako taldea

**Eskola
datuetan**

320

ikasle

18

mugikortasun-
unibertsitate



Azpiegiturak

2

simulazio-gela

ekitaldi-areto

1

informatika-gela
duen liburutegi

1

6

irakaskuntza-gela
balioaniztunak

3

ikasketa-gela

atseden-gela

1

Hobetu ezagutu
gaitzazu hemen.



Kontaktua

José Achotegui, z/g
01009 Vitoria-Gasteiz (Araba)

945 21 80 52
eu.enfermeria-vitoria@ehu.eus



Mugikortasun programak


SICUE, Estatuko unibertsitateen artean: Kanaria Handiko Las Palmaseko Unibertsitatea, Viceko Unibertsitatea (Manresa), Gironako Unibertsitatea, Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa (Tarrasa), Balear Uharteetako Unibertsitatea, Huelvako Unibertsitatea, A Coruñaeko Unibertsitatea, Vigoko Erizaintza Eskola (POVISA), Alcalá de Henaresko Unibertsitatea (Madril) eta Gaztela-Mantxako Unibertsitatea (Toledoko campusa eta Cuenca).

ERASMUS +, Europako unibertsitateen artean: Italia, Portugal eta Belgika.

EHU-AL programa eta beste destino batzuk: Latinoamerikako unibertsitateetarako (Txile, Argentina, Uruguai, Kolonbia, Mexiko) eta beste destino batzuk (Suitza).

Aplikagarria 3. eta 4. mailan.

* Hitzarmena sinatu dugun unibertsitateen zerrenda etengabe eguneratzen ari da. Ziurtatu informazio berriena gure web orria kontsultatzen.



Unibertsitateko praktikak

Praktika klinikoak kredituen % 38,3 dira. Nahitaezkoak eta garrantzitsuak dira ezagutza teorikoak eta simulaziokoak integratzeko.

Eskolak txandakatze-ibilbide bat diseinatu du lau ikasturteetan, hainbat laguntza-zentrotan eta osasun-esparrutan:

- Osakidetzako osasun zentroak eta ospitaleak.
- Gizarte Ongizaterako Foru Aldundiaren eta Gasteizko Udalaren zentro soziosanitarioak.
- Zentro pribatuak: Mutualia, Quirón Salud Vitoria, Aita menni, San Juan de Dios... etab.



Prestakuntza praktikoko hori eduki teorikoetatik harago doa, garapen pertsonal eta profesional zabalagoa eta dimentsio anitzekoa bultzatuz.

Eleoniztasuna

Titulazioa euskaraz eta gaztelaniaz ematen da. Gainera, hautazko irakasgai bat eskaintzen da ingelesez.

Titulazio honek gaitasuna emango dizu...



- Pertsonen osasun-premietara egokitutako osasun-arreta teknikoa eta profesionala.
- Osasun-emaizetara bideratutako zainketak planifikatzea eta ematea.
- Erizaintzaren oinarri eta printzipio teorikoak eta metodologikoak ezagutzea eta aplikatzea.
- Pertsonen, familiei edo taldeei zuzendutako zaintza-sistemak diseinatzea.
- Erizaintzako esku-hartzeak ebidentzia zientifikoan eta eskura dauden bitartekoetan oinarritzea.
- Pertsonak aurreiritzirik gabe ulertzea.
- Profesional-taldeekin lan egitea.
- Osasun-informazioko sistemak ezagutzea.
- Erizaintzako zainketak osasun-arreta integralean oinarrituta egitea.

Pertsonak gustuko badituzu, gizakia bere osotasunean ulertzen baduzu eta zure motibazioa sufrimendu eta/edo kalteberatasun uneetan beste batzuk laguntzea eta zaintzea bada, Erizaintzako Gradua da bilatzen ari zarena.

Ikasketa plana

Klase teorikoak 6 ECTSkoak dira, 10 ECTS dituen IV Erizaintza Klinikoa izan ezik; eta praktikaldi bakoitzak kreditu kopuru espezifiko bat du esleitura.

LEHENENGO MAILA. 60 kreditu
(oinarrizko irakasgaiak, 48 +
nahitaezkoak, 12)

1. LAUHILEKOA

- Giza Gorputzaren Egitura eta Funtzioa I
- Giza Gorputzaren Egitura eta Funtzioa II
- Antropologia, Etika eta Legeria
- Informazio Sistemak eta Datuen Analisia
- Osasun Zainketei Aplikatutako Zientzia Psikosozialak (Euskarazko taldean bigarren lauhilekoan)

2. LAUHILEKOA

- Giza Gorputzaren Egitura eta Funtzioa III
- Patologia: Oinarrizko Zainketak
- Erizaintzaren Oinarri Teorikoak
- Osasun Publikoa (Euskarazko taldean, lehenengo lauhilekoa)
- Zaintzarako Praktiketako Hastapena (6 ECTS)

BIGARREN MAILA. 60 kreditu
oinarrizko irakasgaiak, 12 +
nahitaezkoak, 48)

1. LAUHILEKOA

- Farmakologia
- Harremanak eta Komunikazioa Zainketetan
- Erizaintzaren Oinarri Metodologikoak
- Erizaintza Klinikoa I
- Bizi Zikloaren Erizaintza I

2. LAUHILEKOA

- Komunitate Erizaintza
- Erizaintza Klinikoa II
- Bizi Zikloaren Erizaintza II
- Practicum I (12 ECTS)



HIRUGARREN MAILA. 60 kreditu
(nahitaezko irakasgaiak, 42 +
hautazkoak, 18)

1. LAUHILEKOA

- Erizaintza Klinikoa III
- Erizaintza Klinikoa IV
- Zerbitzuen Kudeaketa eta Kalitatea
- Practicum II (8 ETCS)

2. LAUHILEKOA

- Practicum III (12 ECTS)
- Hautazkoak: Ikasleek hautazko 18 kreditu ikasi beharko dituzte, ezarritako eskaintzaren arabera.

LAUGARREN MAILA. 60 kreditu
(nahitaezko irakasgaiak, 54 +
Gradu Amaierako Lana, 6)

1. LAUHILEKOA

- Practicum IV (30 ECTS)


2. LAUHILEKOA

- Practicum V (24 ECTS)
- Gradu Amaierako Lana (6 ECTS)

Hautazkoak 4,5 ECTSkoak dira, Euskararen arauak eta erabilera izan ezik, 6 ECTSkoa baita.

- Mendekotasun Egoeran dauden Pertsonentzako Atentzioa
- Erizaintzako Atentzioa Larrialdietan eta Emergentzietan
- Komunikazio Terapeutikoa Eragin Emozionaleko Egoeretan
- Zauri Kronikoak Dituzen Pertsonen Zainketa Integrala
- Sexualitatea Erizaintzaren Ikuspegitik
- Evidence-based Nursing Care (ingelesez)
- Kultura eta Osasuna (gaztelaraz)
- Euskarazko arauak eta erabilera (euskaraz)
- Osasun digitala (online)

Graduaren ondoren...



Irteera profesionalak

- Ospitale publikoak eta pribatuak.
- Lehen mailako arretako eta arreta espezializatuko zentroak.
- Ospitalez kanpoko larrialdi-zerbitzuak.
- Zentro soziosanitarioak.
- Osasun mentaleko, lan-osasuneko eta eskola-osasuneko zerbitzuak.
- Unibertsitateak eta ikerketa-zentroak.
- Erizaintzako zerbitzuak antolatzea eta kudeatzea.
- Autoenplegua.

